

Som Energiako Estatutuen testu moldatua, SCCL

Batzar Orokorrak onarturiko testua 2025/05/31

AURKIBIDEA

I. KAPITULOA. DEITURA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA	2
II. KAPITULOA. BAZKIDEAK	3
III. KAPITULOA. ERREGIMEN EKONOMIKOA	14
IV. KAPITULOA. BARRUKO ANTOLAMENDU FUNTZIONALA	19
V. KAPITULOA. KOOPERATIBAREN GOBERNUA, KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA	19
VI. KAPITULOA. ESTATUTU SOZIALAK ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZKETA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA	30
XEDAPEN OSAGARRIAK	31

I. KAPITULOA. DEITURA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA

1. Artikulua. Deitura soziala

Som Energia, SCCL izenarekin irabazirik gabeko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Sozietate Kooperatibo bat osatzen da. Kataluniako uztailaren 9ko 12/2015 Legearen printzipio eta xedapenei eta aplikagarri zaion kooperatiba-legeriari lotuta dago, nortasun juridiko osoarekin eta bere bazkideen erantzukizun mugatuarekin betebeharr sozialengatik.

2. Artikulua. Sozietatearen xedea

Sozietate Kooperatibo honen helburua iturri berriztagarritatik datozen energia elektrikoa eta bero-energia sortzea eta saltzea da, baita zerbitzuak ematea eta erlasionaturiko produktuak banatzea ere, barne hartuta proiektu-, ingeniari-, garapen-, eraikuntza-, eragiketa-, mantentze- eta besterentze-jarduerak, zein zerbitzu eta instalazio mota horiek garatzeko beharrezkoak diren analisi-zerbitzuak, ingeniari-azterlanak edo energia-aholkularitza, azterlan tekniko, juridiko eta ekonomikoak ere, berezkoak zein hirugarrenenak izan. Aipatutakoak bazkideek eta beren senideek zuzenean kontsumitzeko ondasun eta zerbitzuak dira.

Era berean, energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrien garapenean oinarritutako bidezko energia-trantsizioa sustatuko duen energia-eredu berri bati buruzko informazioa, prestakuntza eta defentsa errazteko beharrezkoak diren jarduerak guztiak barnean sartzen dira, bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen defentsa ere, eta, bereziki, energiaren inguruko herritar-komunitate edo energia-komunitate gisa egin ditzakeen jarduerak guztiak.

Bere jarduerak aurrera eramateko, beharrezkoak diren eraikinen salerosketa ere espresuki aipatu behar den helburua da, baita eraikin horiek hirugarrenei alokatzea ere. Kooperatibak bere helburu soziala zuzenki edo zeharka gauzatu ahalko du, baita beste sozietateetan parte hartuz ere.

Kooperatibak bere lan kooperatibizatua bazkide ez diren bestelako pertsonekin egiten du. Muga bakarra aplikagarriak diren Kataluniako 12/2015 Legeak eta bestelako araudiak izanen dira. Inolako kasutan ezingo da ekitaldi ekonomiko bakoitzaren salmenta osoen % 50 gaintitu, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 legeak dioena kontuan hartuz.

3. Artikulua. Iraupena

Sozietatea iraupen-mugarik gabe sortzen da eta bere jarduerak 2011ko urtarrilaren batean hasiko dira.

4. Artikulua. Helbide soziala eta aplikazio-eremua

Bere helbide soziala hauxe izango da: Riu Güell, 68, 17005 Girona; eta webgune korporatiboa www.somenergia.coop domeinuan ezarriko da. Domeinu hori publizitatea egiteko eta

komunikaziorako erabili ahal izango da Kooperatiben 12/2015 Legeak ezarritakoaren arabera. Kooperatibaren sorrera Kooperatiben Erregistroan inskribatu da jada. Helbide fisikoa beste toki batera mugitu daiteke, udalerritik berebera, Errektore Kontseiluak hala erabakirik. Hala ere, beste herri batera mugitu ahal izateko, artikulua hau aldatuko duen Batzar Nagusiaren erabakia beharko da.

Webgune korporatiboa ezabatu, aldatu eta lekuz aldatzeko, Kooperatiben Legean xedatutakoari egingo zaio kasu. Kooperatibaren eta bazkideen arteko komunikazioak, dokumentuen bidalketa, eskaera eta informazioa barne, bide elektronikoen bidez gauzatu ahal izango dira.

Webgune korporatiboaren funtzionamendua Kooperatiben Legaren 7tik 9ra bitarteko artikuluetan ezarritakoari lotuko zaio. Zehazki, sozietate kooperatiboak gaitu beharko du webgune korporatiboaren bidez, bazkideen arteko mezu elektronikoen jasotze-data eta edukia modu fede-emailean egiaztatzea ahalbidetuko duen kontakturako gailua, datu pertsonalen babeserako legea errespetatuz.

Kooperatibak bere jardura kooperatibizatua batez ere Katalunian egingen du.

II. KAPITULOA. BAZKIDEAK

5. Artikulua. Bazkideak izan daitezkeen pertsonak

Kataluniako Kooperatiben Legearen 23. artikulua arabera, kooperatibaren bazkideak kontsumo-bazkideak, lan-bazkideak edo bazkide kolaboratzaileak izan daitezke.

Kooperatiba honen kontsumo-bazkide izan daitezke energia sektore elektriko legeriak ezartzen dituen baldintzetan erosten duten eta kontsumitzaile-kategorian sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak, eta baita Kataluniako Kooperatiben Legearen 22. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte; eta, estatutu hauetan ageri diren helburuekin bat eginez, honako aspektu hauetan baldintza hobeak nahi dituztenak: kalitatea, aukera, informazio eta prezioa, beren kontsumorako ondasunak nahiz beraien senideentzat.

Kooperatibak lan-bazkideak izango ditzake 2. artikuluan aurreikusten diren xedea eta jarduerak burutzeko. Lan-bazkide izateko, 7. artikuluan zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

Jardura kooperatibizatu nagusia egin gabe, kapital sozialaren ekarpenaren bidez Kooperatibaren helburu soziala lortzen lagundu ahal duten pertsona fisiko eta juridikoak Kooperatibaren finantzetako bazkide kolaboratzaileak (aurrerantzean, "bazkide kolaboratzaileak") izan ahalko dira.

Bazkide kolaboratzaileek Batzar Nagusian hitz egiteko eskubidea dute, baina ez bozkatzeko. Kooperatiba irabaziri asmorik gabeko erakundea denez, ez dute inolaz ere eskubiderik izango.

itzulkin kooperatiboa jasotzeko.

6. Artikulua. Onarpen prozedura

1. Pertsona bat kontsumo-bazkide gisa onartua izan dadin, honako betebeharrak bete beharko dira:

a) Estatutuetako 5. artikuluan xedatzen diren baldintzak eta, horretaz gain, lan-bazkideen kasuan, 7. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

b) Kode Zibilak dioenaren arabera aritzeko gaitasuna izatea

c) Kapital Sozialean gutxieneko diru-ekarpena egitea eta izenpetze momentuan osorik ordaintzea.

d) Bazkide kolaboratzaileei dagokienez, Errektore Kontseiluarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea, eta bertan haien partaidetzaren baldintza zehatzak xedatzea, barne hartuta borondatezko ekarpenak eta estatutuek arautzen ez dituzten banakako beste alderdi batzuk. Hitzarmen hauek desberdinak izan daitezke bazkide kolaboratzaile bakoitzerako.

e) Lan-bazkide izatea eskatzen duten langileei dagokienez, kooperatibak lan-bazkidearen figurari eta bere konpromisoari buruz ematen duen prestakuntza burutzea; eta horrez gain, Barne-erregimenaren araudiak, Kataluniako Kooperatiben legeak 133. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, erregulatzen duen proba-epe bat gainditzea.

2. Interesatuak Errektore Kontseiluari bere sarrera-eskaera aurkeztu behar dio, norberak idatzia, postaz, emailez edo beste bide telematikoz batzuen bitartez bidalia.

3. Errektore Kontseiluak —edo, hala badagokio, Errektore Kontseiluak eskuordetutako batzorde batek— bazkide berriaren onarpena erabakiko du. Eskatzaileari bere erabakia idatziz bidaliko dio, eskaeraren berri izan eta bi hilabete bete aurretik. Interesaturik dagoen pertsonari onarpena ala ukapena jakinarazi behar zaio. Onarpena bidezko kausa batengatik bakarrik uka daiteke eta Batzar Nagusiari horren berri eman behar zaio. 3 hilabete pasatu badira eta interesatua dagoen pertsonari ez bazaio ezer esan, eskaera onartutzat hartuko da.

4. Akordioa ez bada onartzen, legearengatik edo estatutu hauengatik izan behar da, betiere irizpide objektiboak erabiliz. Eskatzaileak ukatze hau aurkaratu ahal du, Batzar Nagusia hitzarmenari buruz informatu eta hilabete bat (1) pasa baino lehenago.

5. Batzar Nagusiak onarpenaren berri izan eta hilabete bat pasa baino lehen, bazkide baten onarpena aurkaratu ahal izango da, interesaturik dagoen pertsonarekin derrigorrezko entzutea egin eta gero. Aurkaratzea idatziz aurkeztu beharko da helbide sozialean, paperean edo era elektronikoz. Gainera, bazkide talde batek sinatu beharko du, % 10k gutxienez; kooperatibak mila

bazkide baditu, alegia, ehun bazkidek sinatu beharko dute; bostehun bazkidek, kooperatibak hamar mila baino gehiago baditu; eta mila bazkidek, ehun mila bazkide izanez gero.

6. Bazkidearen onarpena behin onartu eta gero, onarpena eraginkorra izanen da Estatutu hauetan finkatu den kapital sozialean derrigorrezko ekarpena egiten duen momentutik, beraz, pertsona honek Estatutu hauetan eta Legean dauden eskubideak izango ditu.

7. Artikulua. Lankideen sarrera bazkide moduan

Kataluniako Kooperatiben Legearen 25. artikulua dioenaren arabera, lan-kontratu mugagabea duten langileak lan-bazkideak izan daitezke.

Lan elkartuen kooperatiben lan-bazkideentzako Kataluniako Kooperatiben legeak finkatzen dituen arauak lan-bazkideei ezarriko zaizkie.

Era berean, lan-bazkide izan nahi duten langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lan-kontratu mugagabea izatea.
- b) Kooperatiban langile gisa jardun izana gutxienez 18 hilabetez.
- c) Asteko 30 orduko lanaldia izatea, lanaldi txikiagoa justifikatzen duen lege-arrazoiren bat izan ezean.
- d) Azken 12 hilabeteotan etekin baxuko edo kultura-bereizketako protokolorik igaro ez izana.

Barne-erregimenaren araudiak eta, horren ezean, Batzar Nagusiko hitzarmenek arautuko dute lan-bazkideen prestazioen erregimena, baita haien lan-sailkapena.

8. Artikulua. Bazkideen betebeharrak

1. Hauek dira bazkide guztiek komunean dituzten betebeharrak.

Bazkideek hauek egiteko beharra dute:

- a) Adostutako ekarpena ordaindu.
- b) Deituak izan diren Batzar Nagusietara eta gainerako organoetara joan.
- c) Gobernuaren organoek onarturiko erabakiak bete.
- d) Kooperatibarentzat kaltegarriak diren edo interes sozialei kalte egin diezaieketen jarduerarik ezta jardunbiderik ez burutu.
- e) Kooperatibaren gai edo datuei buruz sekretua gorde, baldin eta hauen dibulgazioak interes sozialei kalte egin badiezaieke.

f) Lege- eta estatutu-araudietatik erazten diren beste betebeharrak bete.

g) Formazio- eta interkooperazio-ekintzetan parte hartu.

2. Kontsumo-bazkideen betebeharrak.

Lehen atalean bildutako betebeharez gain, kontsumo-bazkideek hauek egiteko beharra dute:

a) Kargu sozialak onartu, justifikaturik egon ezean.

b) Kooperatibaren helburuekin bat datozen ekintzetan parte hartu eta jarduera Kooperatibizatzailea aurrera eraman.

c) Konpetentzia-jardueretan ez aritu, ez kooperatibaren helburu sozialen aurka ezta haietan aritzen direnekin elkarlanean, Errektore Kontseiluak espresuki baimendu ezean.

d) Kooperatiban gutxienez bi (2) hilabete egon.

3. Bazkide kolaboratzaileen betebeharrak

Lehen atalean bildutako betebeharez gain, bazkide kolaboratzaileek hauek egiteko beharra dute:

a) Behin onartuta, gutxienez bost (5) urtez bazkide kolaboratzaile gisa iraun.

4. Lan-bazkideen betebeharrak

Lehen atalean bildutako betebeharez gain, lan-bazkideek hauek egiteko beharra dute:

a) Kargu sozialak onartu, justifikaturik egon ezean.

b) Kooperatibaren helburuekin bat datozen ekintzetan parte hartu eta jarduera Kooperatibizatzailea aurrera eraman.

c) Behin onartuta, gutxienez urte batez (1) bazkide kolaboratzaile gisa iraun.

d) Kooperatiban haien lana ematea ez den beste ezer ez egin, arrazoizko kausengatik izan eta Errektore Kontseiluak lehendik baimendu ezean.

e) Konpetentzia-jardueretan ez aritu, ez Kooperatibaren helburu sozialen aurka ezta haietan aritzen direnekin elkarlanean, Errektore Kontseiluak espresuki baimendu ezean.

9. Artikulua. Bazkideen eskubideak

1. Hauek dira bazkide guztiek komunean dituzten eskubideak.

Bazkideek hauek egiteko eskubidea dute:

a) Hitzez eta botoz, Batzar Nagusiaren eta partaideak diren gainerako organoen akordioetan parte hartu.

b) Kataluniako Kooperatiben Legearen 39 eta 40. artikuluek diotenaren arabera informazioa jaso.

c) Kapitalari egindako ekarpenen dirua (eguneratua beharrezkoa bada) berreskuratu, baldin eta baja emanez gero, edo erakundea desegiten edo aldatzen bada; estatutueta 14. artikulua dioenari kalterik egin gabe, non aipatzen den Errektore Kontseiluak ekarpenaren dirua itzultzeari uko egiten ahal diola. Zigor-espeditente baten ondorioz sortu den eskubideen behin-behineko etenaldiak ez du ekarpenetan eraginik izango.

d) Estatutu eta lege-arauak ezartzen dituzten beste eskubideak gauzatu, batez ere, Kataluniako Kooperatiben Legearen 28. artikuluan finkatutakoek, baita kooperatibaren organoek onarturikoek ere.

2. Kontsumo-bazkideen eskubideak.

Lehen atalean bildutako eskubideez gain, kontsumo-bazkideek hauek egiteko eskubidea dute:

a) Kooperatibaren helburu soziala gauzatzeko parte hartu.

b) Sozietatearen organoen karguak aukeratu eta aukeratuak izan.

c) Hitzez eta botoz, Batzar Nagusiaren eta partaideak diren gainerako organoen akordioetan parte hartu.

3. Lan-bazkideen eskubideak.

Lehen atalean bildutako eskubideez gain, lan-bazkideek hauek egiteko eskubidea dute:

a) Kooperatibaren helburu soziala gauzatzeko parte hartu.

b) Sozietatearen organoen karguak aukeratu eta aukeratuak izan.

c) Hitzez eta botoz, Batzar Nagusiaren (estatutu hauen 41. artikuluan xedatzen den ponderazioarekin) eta partaideak diren gainerako organoen akordioetan parte hartu.

10. Artikulua. Informazio-eskubidea

Informazio-eskubidea gauzatu ahal izateko, bazkideek Kataluniako Kooperatiben Legearen 39 eta 40. artikuluetan aipatzen diren baliabideak erabili ahalko dituzte; besteak beste: Estatutu hauen eta Barne-araudiaren (egonez gero) kopia bat jasotzea eta egiten diren aldaketan eta norberarengan eragina duten gobernu-organoen erabakien berri izatea ere; bere egoera ekonomikoa

konsultatzea; bazkideen erregistro-liburuaren eta Batzar Nagusiaren akta-liburua aztertzea eta ziurtagiriak jasotzea; eta Ohiko Batzar Nagusiaren deialdiaren egunetik honako dokumentu hauek aztertzea helbide sozialean: balantzea, galdu-irabazien kontua eta argibide-memoria, emaitzen ezarpenaren proposamena, Kontu-hartzailearen txostena eta, beharrezkoa izanez gero, auditoreena, baita dokumentu hauen kopia bat jasotzea edo beharrezkoa duten gaietan informazio gehiago izatea ere, betiere idatziz eskatuz gero Batzar Nagusia izan baino bost egun lehenago.

Aurreko puntuei buruzko informazioa bazkideen eskura egon daiteke bazkideentzako webgune korporatiboko sarbide pribatuko eremu batean, estatutu hauen 4. artikulua araberako sortutako gailuaren bidez.

Indarrean dauden Estatutuak eta Barne Araudia webgunean argitaratu behar dira.

Ohiko Batzar Nagusiaren deialditik aurrera, ekitaldi ekonomikoko kontuei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, bazkideek webgune korporatiboko sarbide pribatuko eremu batean aukera izan behar dute, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak eta, hala badagokio, esku-hartze edo kontu-ikuskaritzaren txostena aztertu, deskargatu edo inprimatzeko.

11. Artikulua. Bazkideen ondare-ardura

Bazkidearen erantzukizuna, betebeharrak sozialei dagokienez, kapitalean egindako diru-sarrerek mugatzen dute (ordainduak izan ala ez ordainduak).

Bajan hartzen duen bazkideak kooperatibaren aurrean arduraduna izaten jarraituko du bost urtetan zehar, aurreko paragrafoan aipatzen den mugarekin, baja data baino lehenagoko onarturiko betebeharrengatik.

12. Artikulua. Bazkidearen baja

1. Araudiaren arabera, bazkidearen baja derrigorrezkoa edo borondatezkoa izan daiteke, eta azken hori justifikatua edo justifikatu gabea, 13. artikuluan ezartzen denez.

2. Bazkide izateko dagozkien modalitateko betebeharrak betetzen ez dituzten bazkideei (baita legeak aurreikusten dituen beste kasuetan ere), nahiz eta Errektore Kontseiluari idatziz ez eskatu, Errektore Kontseiluak eskuordetutako batzordeak edo, hala badagokio, Errektore Kontseiluak berak derrigorrezko baja emango die.

3. Edozein bazkidek baja boluntarioa eskatu dezake Kooperatiban. Horretarako, kontsumo-bazkideek hilabete bat (1) lehenago idatziz jakinarazi beharko diote Errektore Kontseiluari eta bazkide kolaboratzaileek edo lan-bazkideek hiru (3) hilabete lehenago. Aurreabisua ematen ez bada, justifikatu gabeko bajatzat joko da.

Kooperatiban irauteko gutxienezko epea bi (2) hilabetekoa da kontsumo-bazkideentzako, urte

batekoa (1) lan-bazkideentzako eta bost (5) urtekoa bazkide kolaboratzaileentzako. Hau betetzen ez bada, bazkidearen baja justifikatu gabekotzat joko da, hala dagozkien erantzukizunen kalterik gabe.

13. Artikulua. Baja justifikatua eta ez justifikatua

1. Baja justifikatua honako kasu hauetan izango da:

- a. Kooperatiban egon behar den gutxieneko denboraldia bete bada eta aurreko artikuluan zehazten den aurreabisuaren epea errespetatzen bada.
- b. Errektore Kontseiluak edo, hala badagokio, horretarako izendatzen den Eskuordeko Batzordeak justifikatua dela pentsatzen badu.
- c. Bazkideak bere helbidea Espainiatik kanpora aldatzen badu.
- d. Batzar Nagusiaren erabakiekiko desadostasuna Kooperatibaren bat-egiteari dagokionez, baldin eta bazkideak aurkako boto eman bazuen edo ez bada batzarrera joan justifikatutako kausa batengatik. Azkeneko kasu honetan bere desadostasuna Errektore Kontseiluko Lehendakariari idatziz esan beharko dio, bat-egite erabakiak argitaratu eta hilabetea pasatu aurretik.
- e. Batzar Nagusiaren erabakiarekiko desadostasuna Kooperatiba eraldatzeari dagokionez, baldin eta Errektore Kontseiluari idatziz jakinarazten bazaio, erabakia onartu eta hilabetea pasa aurretik.
- f. Batzar Nagusiaren akordioarekiko desadostasuna, bazkide bakoitzak kapitalean sartu behar duen diru kopuruari dagokionez, baldin eta bazkideak aurkako botoa eman badu eta aktan espresuki bere aurkako jarrera agerian jarri badu; baita kausa justifikatu batengatik Batzorde Nagusian parte hartu ez duten bazkideek ere, beti ere erabakia hartu eta hilabetea pasa baino lehenago baja eskatzen badute. Kasu hauetan onartzen diren ekarpen berriak ezingo zaizkie eskatu.
- g. Diru-itzultze eskubidea duten ekarpenen transformazio-erabakiarekin ados ez dauden bazkideen baja, baldin eta ekarpenen baja bada. Beroni dagokion diru-itzultzea Errektore Kontseiluak baldintzarik gabe uka dezake edo alderantzizko eraldaketa. Ados ez dauden bazkide hauek aurkako boto eman behar izan dute eta aktan espresuki beraien aurkako jarrera agertu behar da. Batzar Nagusian parte hartu ez duten bazkideen baja justifikatutzat hartuko da Errektore Kontseiluari baja idatziz aurkezten badiote, eraldatze-erabakia onartu eta hilabetea pasa baino lehenago.

2. Artikulu honen 1. atalean ageri diren kasuetan izan ezik, baita Kataluniako Kooperatiben Legean ageri direnetan salbu, bazkidearen baja justifikatu gabekotzat hartuko da.

3. Lege honek aurreikusten ez duen eta estatutu hauetan ageri ez den kausa bat proposatzen bada, Errektore Kontseiluak erabakiko du baja justifikatua den ala ez. Baja justifikatutzat aintzat hartzen bada, ez da ezarriko egonaldi eta aurreabisu eperik.

4. Errektore Kontseiluak edo, hala badagokio, Errektore Kontseiluaren Eskuordeko Batzordeak hiru hilabeteko epean erabaki behar du bazkidearen baja onartuko duen edo ez, arrazoi-idazki bidez eskaera egiten denetik zenbatzen hasita, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi beharko zaio. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik aurkeztu ez bada, borondatezko baja justifikatutzat joko da.

5. Errektore Kontseiluaren Eskuordeko Batzordeak edo, hala badagokio, Errektore Kontseiluak berak bazkide baten baja ematea erabakitzen duen ebazpenaren aurka errekurtsio aurkeztu ahal izango zaio Batzar Nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Errekurtsioa isilpeko bozketan ebatsi behar da, errekurtsioa jarri eta hiru hilabeteko epean. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik aurkeztu ez bada, borondatezko baja justifikatutzat joko da. Ebazpen horren aurka errekurtsioa jar daiteke jurisdikzio eskudunaren aurrean.

14. Artikulua. Artikulua.-Bajaren ondorio ekonomikoak. Diru-itzultze eskubidea

1. Bazkide batek baja ematen badu, bazkideak kapital sozialari egindako borondatezko zein derrigorrezko ekarpenen diru-itzultzea eskatzeko eskubidea izango du, Errektore Kontseiluak baldintzarik gabe uka ditzakeen ekarpenei buruz Legeak eta estatutu sozialek agintzen dutenari kalterik egin gabe. Hala eta guztiz ere, Errektore Kontseiluak borondatezko ekarpenen diru-itzultzea erabaki beharko du, bazkideak diru-itzultzea eskatzen duen ekonomia-ekitaldiaren hasieran dagoen kapital sozialaren %10eko mugaraino, eta betiere urteko 1.350.000 euroko mugarekin, artikulu honen 4. atalean ezarritako epean. Dirua itzultzeko eskaerek diru-itzultze berrien muga hori gainditzen badute, Errektore Kontseiluak eskaera horien alde erabaki beharko du, zeina, Estatutu hauen 21. artikuluari jarraikiz, eskaerei inolako baldintzarik gabe uko egiteko askatasuna izango baituen.

2. Bazkidearen baja gertatuz gero, ekarpen sozialen diru-itzultze eskubidea gauzatzeko, honako irizpide hauetara egokitu behar da:

a) Bazkidearen baja suertatzen den ekonomia-ekitaldiaren urteko kontuak onartu eta hilabete bateko epean, kapital sozialean egindako ekarpenak behin betiko diru-kopurua zehaztu behar da, baja gertatzen den ekitaldi ekonomiko eta bazkidearentzat eratortzen ahal zaizkion emaitzak kontuan harturik.

Errektore Kontseiluak zenbateko hau behin-behinekoz zehaztu dezake kontuak onetsi baino lehenago eta behar izanez gero, behin betikoa baino lehenagoko diru-itzultzea baimendu dezake.

b. Behin betiko diru-itzultzearen zenbatekotik, aurreko paragrafoaren arabera, honako kenketak egingo dira, komeni denean:

(i) Bazkideak kooperatibari, edozein kontzepturengatik, zori dizkion diru-kopuru guztiak.

(ii) Ez Justifikatutako bajagatik edo kanporaketa batetik datozenak.

(iii) Egotzi eta kuantifikatu ahal zaizkion ardurak, ondare-ardura kaltetu gabe, Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen 41.4. artikulua dioena aintzat hartuz.

3. Aurreko paragrafoetan aurreikusten denaz gain, honako kenkariak egin daitezke:

a. Baja justifikatua izanez gero, ez da kenkaririk egingo.

b. Baja justifikatu gabea izanez gero, gehienez % 20koa.

c. Kanporaketen kasuan, gehienez % 30ekoa.

d) Ezin dira kenkaririk egin borondatezko diru-sarreretan.

4. Kooperatibak ekarpen sozialen ordainketa bazkidearekin adostutako epean egin beharko du, edo, bestela, Errektore Kontseiluak finkatzen duen epean, zeina, gehienez, bost urtekoa izango den, baja gertatzen den egunetik edo Errektore Kontseiluak, Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen 35.4. artikulua arabera, diru-itzultzea erabakitzen duen egunetik zenbatzen hasita. Denboraldi horretan, kooperatiba uzten duen bazkideak diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea izango du itzuli behar zaion zenbatekoa kontuan hartuz.

15. Artikulua. Bazkideen hutsegiteak

Bazkideek egiten dituzten hutsegiteak, euren garrantzia, transzendentzia eta nahitasuna kontuak harturik, honela sailkatuko dira: arinak, larriak edo oso larriak.

16. Artikulua. Hutsegite arinak

Hutsegite arinak honako hauek dira:

1. Errektore Kontseiluaren ustez, beste bazkide bat edo batzuekiko arrazoirik gabeko begirune edo errespeturik eza gertatu denean.

2. Kooperatibari helbide berria ez denean jakinarazten hura aldatu eta hurrengo hilabeteko epean.

3. Organo eskudunen arau edo erabakiak ez betetzea.

4. Barne-araudiak edo Batzar Nagusiak ezartzen duten beste edozein arau edo erabaki .

17. Artikulua. Hutsegite larriak

Hutsegite larriak honako hauek dira:

1. Bazkideak bete behar dituen karguak edo eginkizunak ez onartzea edo haietatik dimititzea, Errektore Kontseiluaren edo Batzar Nagusiaren ustetan arrazoi justifikaturik izan ezean.
2. Kaltea eragin dezaketen kooperatibaren sekretuak urratzea.
3. Aldizkako kuoten ordaintetari edo kapitalaren diru-sarrerei dagozkien betebeharrak sozialak, bereziki ekonomikoak, ez betetzea.
4. Agindu estatutarioak ez betetzea edo ekintza bat egitea, edo egiteari uztea, Kooperatibarentzako kalte larria gerta daitekeenean.
5. Hutsegite arin asko egitea eta bazkidea aurreko hiru urteetan hutsegite berberengatik zigortua izana.

18. Artikulua. Hutsegite oso larriak

Hutsegite oso larriak honako hauek dira:

1. Bazkide batek guztien kapital edo sinadura soziala negozio partikularretarako erabiltzea.
2. Betebeharrak sozialak ez betetzea, Kooperatiba kaltetuz.
3. Kooperatibarentzat kaltegarriak diren jarduketak egitea.
4. Errektore Kontseiluko kide bat behin eta berriz deitua izan den ekitaldi sozialetara ez joatea.
5. Betebeharrak ekonomikoak behin eta berriz ez betetzea.
6. Kooperatibarekin lehian aritzea eta garrantzitsuak diren datuak ezkutetzea.
7. Azken hiru urteetan hutsegite arin edo larriak errepikatzea bazkidea aurreko hiru urteetan horiengatik zigortua izan bada.
8. Kooperatibak bere bazkideekin duen harremanarengatik, konpromisokoak diren dokumentuak, sinadurak, zigiluak edo antzekoak faltsutzea.

19. Artikulua. Zigorrak

1. Hutsegite oso larriak garrantzia eta asmoaren araberako zigorrak hauetako batekin edo batzuekin zigortuko dira:

1º Organo sozialetan karguetan jarduteko gaitasungabetzea bost urtez gehienez.

2º Kanporaketa.

2. Hutsegite larriak garrantzia eta asmoaren arabera, zehapen honekin zehatuko dira:

1º. Organo sozialetan karguak betetzeko eskubidea eten, urte batez gehienez.

3. Hutsegite arinak honako zigorrarekin zigortuko dira:

1º. Idatzizko ohartarazpena.

20. Artikulua. Zigor-prozedura

Hutsegiteak Errektore Kontseiluak zigortu behar ditu, zigortzaile ahalmena baitu. Interesaturik dagoen pertsonaren lehenagoko entzutea hamabost eguneko epean derrigorrezkoa da. Hasi den espedientea gehienez bi hilabeteko epean bideratu behar da. Denbora hau iragan eta gero, Errektore Kontseiluak ebatzi beharko du. Errektore Kontseiluak bideratzailea den pertsona bat izendatu dezake zigor-espedienteak tramitatzen laguntzeko.

Hutsegite larri edo oso larrien batzordeko zigor-espedientearen hasieran edo kanporaketa-espedientearen hasieran, Errektore Kontseiluak aproposak iruditzen zaizkion behin-behineko neurriak har ditzake, batez ere, hauxe: bazkidearen eskubideak kentzea (jarduera kooperatibizatua garatzea barne). Informazio eskubidea ez da Inongo kasutan kenduko.

Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsio bat jar daiteke Errektore Kontseiluaren erabakiaren aurka, zigorra jaso eta hilabete bateko epean. Batzorde Nagusiak gehienez sei hilabeteko epea izanen du errekurtsioa ebazteko, errekurtsioa aurkeztu den datatik aurrera kontatuta.

Zigor-erabakia, edo beharrezkoa izanez gero, Batzar Nagusiaren berrespena, jakinarazpena jaso eta hilabete bateko epean aurkaratuak izan daitezke; erabaki sozialak aurkaratzeko ezarritako prozedura kontuan hartuz eta jurisdikzio arruntaren aurrean Kooperatiben Legearen 159. artikulua agintzen duena aintzat hartuz.

Bazkide bat Errektore Kontseiluak bideratutako espediente baten bitartez bakarrik kanporatua izan daiteke. Batzar Nagusiaren aurrean egindako errekurtsioa, pertsona interesatuari entzun eta gero, bozketa sekretuaren bitartez erabakiko da. Batzar Nagusiak kanporaketa baliogabetu edo berretsiko du. Azkeneko kasuan bazkidearen baja tramitatuko da.

Kanporaketa-erabakia Batzar Nagusiak erabakiaren berrespenaren berri ematen duen momentutik betearazle izanen da, edo errekurtsioa aurkezteko epea bukatzen denean.

Hutsegite arinek hilabete baten buruan preskribatzen dute; hutsegite larriek bi hilabeteren buruan; eta oso larriek hiru hilabeteren buruan. Preskripzio-epa Errektore Kontseiluak hutsegiteaz jabetzen den momentuan hasten da eta, edozein kasutan, egin eta sei hilabeteren buruan. Zigor-espedientea hasten denean preskripzio-epa eteten da eta berriz hasiko da hiru hilabete eta

gero, erabakirik egon ezean.

III. KAPITULOA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

21. Artikulua. Kapital soziala

Kapital soziala bazkideen beharrezko eta borondatezko ekarpenek osatzen dute.

Kapital sozialera egin beharreko gutxieneko ekarpena ehun (100) eurokoa da kontsumo-bazkideentzako, mila (1.000) eurokoa lan-bazkideentzako eta mila (1.000) eurokoa bazkide kolaboratzaileentzako.

Errektore Kontseiluak inolako baldintzarik gabe uko egin diezaioke bazkideen derrigorrezko eta borondatezko ekarpenak itzultzeari.

Kontsumo-bazkideen ekarpenak titulu izendunen, libreten, fitxen edo bazkideen zerrenden bitartez egiaztatuko dira, dagozkien zenbatekoa adierazita, ekarpenaren arabera; eta ekarpenak ez dira, inola ere, balore-titulutzat hartuko. Ekarpenak argi agertu beharko dira, baita gaurkotzeak eta interesak ere.

Lan-bazkideen eta bazkide kolaboratzaileen ekarpenak titulu izendun berezien bidez egiaztatuko dira. Edonola ere, bazkideen ekarpen oro kontabilitateari dagokionez behar den moduan bananduta agertu beharko dira, lan-bazkideak edo bazkide kolaboratzaileak bereiziz.

Kapital sozialean egindako bazkideen ekarpenek, bai derrigorrezkoak baita borondatezkoak ere, ezin dute diruaren interes legala baino interes handiagoa izan, dagozkien gaurkotzeei kalterik egin gabe.

Tituluen gutxieneko balioa ehun (100) eurokoa da bakoitzeko. Kontsumo-bazkide bakoitzak gutxienez titulu bat (1) izan behar du eta bazkide kolaboratzaile bakoitzak eta lan-bazkide bakoitzak gutxienez hamar (10) titulu izan behar ditu.

Ekarpenak ondare, eskubide edo Kooperatibari emandako ohiko zerbitzu gisa ere egin daitezke. Errektore Kontseiluak behar bezala balioztatuko ditu, Kataluniako Kooperatiben Legearen 70.5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Erabakia Batzar Nagusian berrikus daiteke.

Harpidetza gauzatzeko momentuan, bazkideek derrigorrezko ekarpenaren %100 ordainduko dute, Errektore Kontseiluaren ustez egokia den baliabidea erabiliz.

Kooperatiban geroago sartzen diren bazkideek Batzar Nagusiak ezarritako baldintza eta zenbatekoen arabera ordainduko dituzte ekarpenak, Kataluniako Kooperatiben Legearen 72. artikuluan xedatutako mugen barruan. Muga hauek ez dute eraginik izango bazkide

kolaboratzaileetan, aipatutako artikuluan xedatzen den moduan.

Gutxienerako kapital soziala hiru mila (3.000) eurokoa da. Eratze momentuan, gutxienerako kapital soziala osorik izenpetu eta ordaindu behar da.

22. Artikulua. Kapital sozialari egindako ekarpen berriak

Batzar Nagusiak, bertaratutako eta ordezkaturako pertsonen botoen bi herenen gehiengoarekin, kapital sozialari ekarpen berriak derrigorrez egitea erabaki dezake, kopurua, epea eta ordainketa-baldintzak finkatuz onarpen-erabakian. Estatutu hauen 13. artikulua araberak, kapital sozialari egin beharreko ekarpen berriekin ados ez dagoen bazkideak bere baja eska dezake.

23. Artikulua. Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenak

Batzar Nagusiak bertaratutako eta ordezkaturako pertsonen botoen gehiengo soilagatik kapital sozialari borondatezko ekarpenen onarpena erabaki dezake. Onarpen-erabakian ageri diren epe eta baldintzetan ordaindu behar dira.

Errektore Kontseiluak, bere aldetik, kapital sozialerako borondatezko ekarpenak onartzea erabaki dezake, borondatezko kapital sozialaren gehieneko kopuruarekin eta Batzar Nagusiak alde aurretik erabakitako gainerako baldintzekin bat etorritik.

24. Artikulua. Interesak

Kapital sozialean egindako derrigorrezko ekarpenek ez dute interesik sortzen. Borondatezkoek, ordea, onarpen-erabakian hola agertuz gero, interesak sor ditzakete. Inongo kasutan ezingo dute diruaren interes legala baino interes gehiago jaso, dagokien gaurkotzei kalterik egin gabe.

25. Artikulua. Ekarpenen transmisioa

Bazkideen derrigorrezko eta borondatezko ekarpenen eskualdatzea izan daiteke:

1. "Bizidunen arteko" ekintzen bitartez, bazkideen artekoak, estatutu sozialetan ageri diren baldintzetan eta Kooperatibaren iragarki-taulan erakutsita, Errektore Kontseiluaren aurretiko onarpenarekin.

2. Bazkidearen heriotza ondoko ekintzen bitartez. Oinordekoek hildako bazkidea ordezkaturako dute bere posizio juridikoan, kooperatiban zituen eskubide eta betebeharretan subrogatuz. Izaera pertsonaleko jardura kooperatibizaturen bat egiten zuten bazkideen kasuan, oinordekoek bi aukera izango dituzte: alde batetik, bazkide izateko alta eskatzea, heriotza gertatu eta sei hilabete igaro baino lehen, baldin eta estatutu sozial hauetan xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte; edo, bestetik, hildako bazkideak kapitalean egindako ekarpenen balioari dagokion kreditua

likidatzea, Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen 75. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

26. Artikulua. Kapital sozialaren murrizketa bazkidearen bajarengatik

Bazkideei edo bere oinordekoei beraien zati sozialaren zenbatekoaren itzultzearen ondorioz kapital soziala estatutu hauetan ezarritako gutxiengoaren azpitik geratuz gero, Batzar Nagusiak kapitalaren murriztapena adostu beharko du eta, horren ondorioz, estatutuak aldatu legeak dioena aintzat hartuz. Kapital soziala ezin da urtebetez (1) baino gehiagoz legezkoa den gutxiengoaren azpitik egon.

27. Artikulua. Ekonomia-ekitaldia, emaitzak, soberakinak

Kooperatibaren ekonomia-ekitaldia urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra hedatzen da. Ekitaldi bakoitzerako inbentarioa, balantzea, emaitzen kontua eta memoria egin behar dira

Kataluniako Kooperatiben Legearen 78.3. artikuluari jarraituz, ekitaldiaren emaitzak kontabilitateko araudiaren arabera zehaztuko dira, baina Kataluniako Kooperatiben Legearen 80. artikuluan zerrendatutako partidak gastatutzat hartuko dira. Emaitza kooperatiboak eta kooperatibaz kanpokoak Kataluniako Kooperatiben Legearen 79. artikuluari eta aplikagarriak gertatzen diren beste araei jarraituz erabakiko dira.

Kooperatibaz kanpoko emaitzak zehazteko, operazio hauetatik sortzen diren diru-sarrerak eta hauek lortzeko beharrezkoak diren gastuak kontuan hartu behar dira, baita oinarritutako inputazio-irizpideen arabera Kooperatibaren gastu orokorreari dagokien zatia ere. Edozein kasutan, kooperatibaz kanpoko emaitzat hartuko dira bazkideak ez diren bestelako pertsonekin egindako jarduera kooperatibizatuetatik lortutakoak. Hauek banan-banan kontabilizatu beharko dira, hortaz, beti beraien kopuru osoa jakin ahal izango da.

28. Artikulua. Soberakinen erabilera

Emaitza kooperatiboak zehazteko kontabilizatutako soberakinetatik (aurreko ekitaldiko edozein motatako galerak kenduta eta sozietatezergak ordaindu baino lehen) honako ehunekoak, gutxienez, honelaxe bideratu behar dira:

1. Orokorrean, %20 nahitaezko erreserba-fondora eta %10 heziketa eta kooperatiba-sustapen fondora.
2. Balantze-erregulaziotik datozen soberakinen % 50, nahitaezko erreserba-fondora.
3. Ibilgetu material edo immaterialeko elementuen alienaziotik lortutako gainbalioetatik datozen soberakinen %100 nahitaezko erreserba-fondora zuzenduko da, ekitaldiko gainbalioetatik datorren emaitza kooperatiboaren limitazioaz, Kataluniako Kooperatiben Legearen 79.2.f artikuluari jarraituz.

Sozietate-zerga ordaindu ostean, gainerako soberakin kooperatiboak borondatezko erreserba-fondora zuzendu beharko dira. Fondo honek banatuezin izaera izango du irabazi asmorik gabeko kooperatibentzat, Kataluniako Kooperatiben Legearen 144. artikuluari jarraituz.

Kooperatibaz kanpoko emaitzak, bereziki bazkideak ez diren bestelakoekin egindako jarduera kooperatiboetatik datozenak, aurreko ekitaldiko edozein motatako galerak kenduta eta sozietate-zerga ordaindu baino lehen, osorik nahitaezko erreserba-fondora zuzenduko dira.

29. Artikulua. Galeren egozpena

Ekitaldi ekonomikoaren galeren konpentsazioa egingo da, Kataluniako Kooperatiben Legearen 82. artikulua araberan, honako arauari jarraituz:

1. Kontu berezi batean egoztea baliozkoa da, etorkizuneko emaitza positiboaren arabera amortizatzen, Sozietate-zergei buruzko Legeak baimentzen duen gehienezko epe barruan, edo zerga-legeria espezifikoak agindutakoa kontuan harturik.

2. Galeren % 50 arte Nahitaezko Erreserba Fondoaren kargupean jar daiteke. Hori egiteko, fondo hau osorik edo zati batean erabili bada, ezingo dira aplikatu, leporatu edo banatu diru-sartze kooperatibizatuak ezta banatu daitekeen beste edozein emaitza positibo ere, fondo honek bere erabilpena baino lehenago zeukan zenbatekoa berreskuratu arte.

3. Galeren osotasuna aurreko artikuluan aipatutako banaezina den borondatezko erreserba-fondoari egotz dakizkioke.

4. Derrigorrezko edo borondatezko erreserbekin konpentsatu ez den zenbatekoa bazkideei egotzi behar zaie haien jarduera kooperatibizatuaren arabera, % 85a izango dena kontsumo-bazkideentzako eta % 15a lan-bazkideentzako, eta zuzenean ase behar dira, galerak eman diren ekitaldi ekonomikoaren hurrengoan, kapital sozialaren ekarpenen murrizketak eginez. Epe hau amaitu ostean galerek konpentsatu gabe badiraute, bazkideak zuzenean ase behar ditu, hilabete bateko epean, kapitalean egindako bere ekarpenen mugaraino, indarreko legeria kontuan hartuz, ez bada kooperatibaren konkurtsoa eskatzen edo ekarpen sozialak gehitzea erabakitzen, eta Kataluniako Kooperatiben Legearen 69. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Bazkide kolaboratzaileek ez dute galeren egozpenean parte hartuko.

30. Artikulua. Nahitaezko erreserba funtsa

Nahitaezko Erreserba Fondoa banaezina da eta honela osatuta dago:

1. Estatutu hauetako 28. artikuluan jarritako ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien gaineko ehunekoarekin.
2. Kooperatibaz kanpoko emaitzekin, 28. artikulua jarraituz.

3. Nahitaezko ekarpenetan egindako kenketekin, bazkidearen baja suertatuz gero (Estatutu hauetako 14. artikuluan ezarrita daude).
4. Beharra ikusten bada ezarri daitezkeen diru-sartze eta aldizkako kuotekin.

31. Artikulua. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Funtsa

Heziketa eta Kooperatiba Sustapen Fondoak ezin dira ez enbargatu ezta banatu ere, eta honelaxe osatzen dira:

1. Estatutu hauetako 28. artikuluan ezarritako ekitaldi bakoitzaren soberakin garbien gaineko ehunekoarekin.
2. Kooperatibak bere bazkideei, diziplina dela medio, ezartzen dizkien isun eta beste zigor batzuekin.
3. Bazkideek edo bestelako pertsonak egindako subentzio, dohaintza edo bestelako laguntzen bidez, Fondo honen berezko helburuak betetzeko.

Batzar Nagusiak Fondo hau erabiltzeko oinarritzko ildoak ezarri behar ditu eta Kataluniako Kooperatiben Legearen 85. artikuluan ageri diren helburuak lortzeko erabili behar dira.

32. Artikulua. Dokumentazio soziala eta kontabilitatea

Kooperatibak honako liburuak ordenatuta eta egunean izan behar ditu:

1. Bazkideen eta haien ekarpen sozialen erregistroa.
2. Batzar Nagusiaren, Errektore Kontseiluaren eta kontu-hartzaileen aktak (eta egonez gero, prestatze-batzordearenak eta errekurtsio-batzordearenak).
3. Inbentarioa eta balantzea.
4. Egunerokoa.

Kontabilitatea Merkataritza Kodean, Kontabilitate Plan Orokorrean eta gainerako kontabilitate arauetan ageri diren baldintzen arabera egin behar da, Kooperatiben Legeak eta aplikagarria den bestelako araudian agertzen diren berezitasunak kontuan hartuz.

IV. KAPITULOA. BARRUKO ANTOLAMENDU FUNTZIONALA

33. Artikulua. Funtsezko elementuak

1. Antolamendu Funtzionala Barne Araudi batek finkatu ahalko du eta Batzar Nagusiak

onartu beharko du.

2. Barne-erregimenaren Araudi horretan, gutxienez, arautuko dira Tokiko Taldeen eta Lurralde Koordinakundeen existentzia, funtzionamendua eta kompetentziak; bazkideek toki zehatz batean (auzoa, herria, udalerrria, eskualdea, probintzia eta autonomia-erkidegoa) sor ditzaketen antolamendu-unitate bezala ulerturik.
3. Lan-bazkideen lan-baldintzak, halakorik balego, Barne-erregimenaren araudian ezarri beharko lirateke, aurreko paragrafoaren arabera garatuta. Hala ere, ezin dira besteen kontura lan egiten dutenen jarduerarako esparruko lan-hitzarmenek edo arau orokorrek zehaztutakoak baino txikiagoak izan. Era berean, lan-bazkideen eta besteen kontura lan egiten dutenen ordainketak, irabazi asmorik gabeko kooperatibentzako Kooperatiben Legearen 144. artikuluan ageri den arabera izango dira.

V. KAPITULOA. KOOPERATIBAREN GOBERNUA, KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA

34. Artikulua. Organo sozialak

Sozietate-kooperatibaren organoak hauek dira:

1. Batzar Nagusia.
2. Errektore Kontseilua.
3. Kontu Hartzailletza.

35. Artikulua. Batzar Nagusia

Batzar Nagusia (bildutako bazkideek osatua) borondate sozialaren adierazpenaren goreneko organoa da.

Batzar Nagusiaren erabakiak bazkide guztientzat bete beharrekoak izango dira, baita disidente edo batzarrera joan ezin izan direnentzat ere. Hala ere, eta Kooperatiben Legearen 52. artikulua dioena aintzat hartuz, erabaki horiek aurkaratu ahal izango dira.

36. Artikulua. Batzar Nagusiaren kompetentziak

Batzar Nagusiak kooperatibaren edozein gairi buruz eztabaidatu eta erabakiak har ditzake, baldin eta beste organo sozial baten esku ez badago. Dena den, bere erabakia honako kasuetan beharrezkoa da:

- a) Errektore Kontseiluaren, kontu-hartzaileen, kontu-ikuskarien eta likidatzaileen izendapena eta balio gabetzea, baita beraien ordainketaren oinarriak ezarri behar direnean ere.
- b) Kudeaketa sozialaren azterketa eta urteroko kontuen onarpena, kudeaketa-txostenaren eta erabilgarri dauden soberakinen erabileraren onarpena eta galeren egozpena.
- c) Estatutuak aldatzea eta Kooperatibaren barne-araudiaren onartzea eta aldatzea, beharrezkoa bada.
- d) Dirua itzultzeko eskubidea duten derrigorrezko eraldaketa, baldin eta Errektore Kontseiluak baldintzarik gabe ukatzen ahal duen ekarpenen baja izan bada, edo alderantzizko eraldaketa; derrigorrezko diru-sarrera berrien onarpena, borondatezko eta bazkide kolaboratzaileen diru-sarreraren onarpena (egonez gero); kapital sozialean egin beharreko diru-sarreraren kopurua berritzea, bazkide berriek egin beharreko ekarpena finkatzea; sarrera-kuotak edo aldizkakoak ezartzea eta kapital sozialean egindako diru-sarrerengatik ordaindu behar den interesa ezartzeko tipo edo oinarriak.
- e) Obligazio, parte-hartze titulu edo beste finantzaketa moten jaulkipena, negoziatu ahal diren baloreen bidez.
- f) Kooperatibaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa, desegitea eta berraktibatzea.
- g) Estatutuen arabera, kooperatibaren egitura ekonomiko, sozial, antolatzaile edo funtzionalaren funtsezko aldaketa dakarren edozein erabaki.
- h) Bigarren graduko kooperatiben eraketa onartzea edo, sortuak badaude, hauen integrazioa.
- i) Kataluniako Kooperatiben Legean xedatutakoarekin bat etorriaz, sailen eraketa eta desegitea.
- j) Errektore Kontseiluko kideen, kontu-hartzaileen, kontu-ikuskarien eta likidatzaileen aurkako erantzukizun sozialaren jarduera.
- k) Estatutuetan edota lege-arauetan aipatzen diren beste kasu guztiak.

Batzar Nagusiari dagozkion konpetentziak (hauen gainean arauz erabaki behar du) indarreko legediaren arabera ezin dira eskuordetu.

37. Artikulua. Batzar-motak: ohikoa, ezohikoa, unibertsala

Batzar Nagusiak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.

Errektore Kontseiluak urtean behin egin behar du ohiko Batzar Nagusirako deialdia, ekitaldi ekonomikoa bukatzen den egunetik hurrengo sei hilabeteetako epe barruan. Honen helburua nagusia hau da: Errektore Kontseiluak burututako kudeaketa aztertzea; hala badagokio, kontuak eta balantzeak onartzea, eta emaitzen aplikazioa adostea.

Aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat ez datozen Batzar Nagusi guztiak ezohikoak izango dira.

Batzar Unibertsala egoki osatutzat ulertuko da, bazkide guztiak egonda, inork ez badu oztoporik jartzen berau egiteko.

38. Artikulua. Ohiko eta Ezohiko Batzarren deialdia

Batzar Nagusia, ohikoa eta ezohikoa, Errektore Kontseiluak deitua izan behar da, helbide sozialean eta Kooperatibaren lantoki nahiz establezimendu guztietan iragarritz. Gainera, Errektore Kontseiluak bazkide guztiei jakinaraziko die era idatzian edo baliabide telematikoen bidez, betiere abisua jasoko dutela ziurtatuz. Bazkide bakoitzari modu indibidualean deialdia helarazi ordez, Batzarra webgune korporatiboan argitaratutako iragarki baten bidez deitu ahalko da. Nolanahi ere, egoitza sozialean iragarki bat argitaratu beharko da. Kasu horretan, batzarra egin arte, Errektore Kontseiluak nahitaez mantendu beharko du webgune korporatiboan Batzar Nagusiaren deialdia eta, hala badagokio, gai-zerrendako puntuei buruzko dokumentuen iragarkia.

Errektore Kontseiluari dagokio txertatu dena Legeak edo Estatutu hauek eskatzen duten epean mantentzen dela egiaztatzea. Webgunerako sarbidearen etenaldia elkarren segidako bi egun edo txandakako lau egun baino gehiagokoa bada, ezin izango da webgunean txertatu diren dokumentuek aipatzen duten gaiari buruz erabakitzeke deitutako Batzar nagusia egin, salbuespen bat izanik argitaratutako egiazko egunen kopurua Legeak eskatutako epearen berdina edo handiagoa izatea. Legeak Batzar Nagusia egin ostean txertatutakoa mantentzea eskatzen duen kasuetan etenaldiren bat gertatuz gero, txertatze aldia luzatu etenaldi egun kopuru beragatik luzatu beharko da.

Alternatiba gisa, publizitate-mekanismo gehigarriak ezar daitezke eta Kooperatibak, webgune korporatiboan txertatutako deialdiei dagokienez, bazkideentzako alerta-sistema bat kudeatu ahal izango du telematikoki.

Deialdia bilera data baino hamabost egun lehenago, gutxienez, eta hogeita hamar egun, gehienez, egin behar da. Deialdian argi eta garbi honako puntu hauek agertu behar dira: bileraren gai zerrenda, eguna eta ordua, bai lehenengo deialdikoa baita bigarrenagoa ere.

Errektore Kontseiluak Batzar Nagusiaren hurrengo bilera non egingo den zehatz dezake lokalaren eskuragarritasun eta egokitasun-irizpideak kontuan hartuta. Batzar Nagusia kooperatibaren lurraldean sakabanatutako establezimendu ezberdinetan egin ahal izango da aldi berean,

beharrezko baliabide telematikoak erabiliz, baldin eta bertaratutakoan identifikazioa, komunikazioaren jarraipena, eztabaidetan esku hartzeko aukera eta botoa ematea bermatzen bada.

Batzar Nagusiak tokia edo tokiak zehazten ez baditu, Batzarra helbide sozialaren herrian egin beharko da, Errektore Kontseiluaren ustetan baldintza egokienak dituen lokal batean.

Errektore Kontseiluak Ezohiko Batzar Nagusia deitu dezake, Kooperatibaren interesentzat onuragarria dela uste badu. Era berean, kontu-hartzaileen batek eskatzen badu, ere deitu behar du edota bazkideen %10k edo 100 bazkidek gutxienez eskatzen badute, mila bazkide baino gehiago izanez gero; bostehun bazkidek gutxienez, hamar bila bazkide baino gehiago badaude; eta mila bazkidek gutxienez, ehun mila bazkide baino gehiago izanez gero.

Errektore Kontseiluak ez badu Batzar Nagusia, ohikoa edo ezohikoa, deitzen, beharturik dagoen kasu eta epeetan, bazkideek epai-deialdia egin dezakete, Kataluniako Kooperatiben Legearen 45. artikuluan aipatzen dena aintzat hartuz.

39. Artikulua. Batzarraren eraketa

Batzar Nagusia lehenengo deialdian zilegitasunez egin ahal izango da boto sozialen erdiak baino gehiago, presente edo ordezkaturik, bildurik daudenean. Bigarren deialdian Batzarra balioz eratuko da boto sozialen kopurua edozein izanda ere.

Kataluniako Kooperatiben Legearen 46.3 artikuluan aipatzen denaren arabera, batzarrean parte hartzeak, presente edo ordezkaturik, honetan egotea esan nahi du, bai fisikoki bai birtualki, baliabide telematikoak erabiliz. Kataluniako Kooperatiben Legean aurreikusten den bezala, Batzar Nagusia bideokonferentzia bitartez edo beste komunikabide mota erabiliz egin daiteke. Edozein modutan, parte hartzaileen identifikazioa argi eta garbi ageri behar da, komunikazioa jarraitua izan behar da eta, azkenik, deliberamenduetan hitza hartzeko eta botoa emateko aukera egon behar da. Kasu honetan, bilera zuzentzen duen pertsona dagoen tokian egiten dela ulertuko da.

Bozketa telematikoki egin ahal izateko, Kooperatibak gailu bat eskaini beharko du bazkideak, webgune korporatiboaren bitartez, Kooperatibarekin kontaktatu ahal izateko. Gailu horrek bazkidearen identitatea egiaztatzen beharko du, baita botoa eman duela eta konfidentziasunez bozkatu duela ere.

Batzarraren burua Errektore Kontseiluko lehendakaria izango da edo bere funtzioak egiten dituen pertsona, hala ere, batzar berebean eztabaidak zuzenduko dituen pertsona aukeratu ahal izango da. Bere funtzioa eztabaidak gidatzea eta ordena mantentzea izango da, Legeak eskatzen duena beteko dela exijituz.

Batzarraren idazkaria Errektore Kontseilukoa izango da, bere ordezkoa edo Batzarrak aukeratzen duena.

40. Artikulua. Erabakiak hartu

Batzar Nagusiak erabakiak hartuko ditu bertaratutako edo ordezkaturiko boto sozialen gehiengo soilarekin, Legeak edo estatutu sozialek gehiengo osoa eskatzen duten kasuetan izan ezik, betiere boto sozialen bi herenak, inolaz ere, gainditu gabe.

Bozketa telematikoki egin ahal izateko, Kooperatibak gailu bat eskaini beharko du bazkideak, webgune korporatiboaren bitartez, Kooperatibarekin kontaktatu ahal izateko. Gailu horrek bazkidearen identitatea egiaztatzen beharko du, baita botoa eman duela eta konfidentzialtasunez bozkatu duela ere.

Batzar Nagusiaren bozketak telematikoki egin ahalko dira, boto-emaile guztiek parte hartzeko baldintza berdinak dituztela bermatuz. Kasu honetan, parte hartzaileak konektaturik dauden bazkide guztiak izanen dira.

Batzar Nagusiak erabakiak hartu behar ditu partaideen aldeko boto sozialen bi herenekin, ondorengo kasu hauetan:

- a) Sozietate Kooperatiboa elkartzen, bereizten, aldatzen edo desegiten bada.
- b) Obligazioak eta parte hartze tituluak jaulki.
- c) Kapital sozialean egindako derrigorrezko ekarpenak exijitu.
- d) Estatutu sozialak aldatzea eskatzen duen edozein erabaki.
- e) Barne-araudiaren onarpena, Kataluniako Kooperatiben Legeak hala eskatzen duen edukietan.

F) Dirua itzultzeko eskubidea duten derrigorrezko eraldaketa, baldin eta Errektore Kontseiluak baldintzarik gabe ukatzen ahal duen ekarpenen baja izan bada, edo alderantzizko eraldaketa. Era berean, eraldaketen erabakiarekin ados ez dauden bazkideek, eta horren kontra botoa eman badute (beren kontrako jarrera aktan argi eta garbi egonik), baja eska dezakete eta baja justifikatuztat hartuko da. Horretarako, aipatutako eraldaketen erabakia hartu eta hilabetea pasa baino lehen, Errektore Kontseiluari baja idatziz eskatu beharko diote. Eskubide bera izango dute batzarrerara joan ez ziren bazkideek, baldin eta kausa justifikatuta badago.

Errektore Kontseiluaren kideen aurka egindako erantzukizun soziala eta edozein kargu sozial baliogabetzeak isilpeko bozketa eta bildutakoen aldeko botoen erdiak eta bat gehiago eskatzen du, puntu hau deialdiaren gai-zerrendan egonez gero; eta gai-zerrendan egon ezean, boto sozialen erdiak eta bat gehiago.

Zigor-espedienteen gaineko erabakiak direla eta (errekurritu diren zigorren berrespena,

erantzukizun-egintza baliatzea edo organo sozialeko kideen kargu-uzteak), erabakiak zigortzen dituen pertsonen boto emateari uko egin beharko diote kide diren organoak auzi horren gainean erabakitzeko bilkura egiten duenean. Halere, pertsona horien bertaratzea kontuan hartu beharko da erabakia hartzeko behar den gehiengoa zehazte aldera. Erabakia baliozkoa izan dadin, bertaratutakoen boto sozialen erdiak gehi bat beharko dira, Kataluniako Kooperatiben Legearen 36. artikuluan aipatzen diren baldintza osagarrien arabera.

Batzar Nagusiak, izaera unibertsala izan ezean, ezin du gai-zerrendan ez dauden gaiei buruzko erabakirik hartu, honako kasuetan izan ezik:

- a) Beste Batzar Nagusi baten deialdia.
- b) Kontuen zentsura, Kooperatibako kideek edo kanpoko pertsona batek eginda.
- c) Errektore Kontseiluko kideen aurka egindako erantzukizun soziala edo kargu sozial bat baliogabetzea.

41. Artikulua. Boto eta ordezkaritza eskubidea

Bazkide bakoitzak boto bat emateko eskubidea du, bazkide kolaboratzaileak salbu, soilik hitz egiteko eskubidea dutenak. Bazkide bat Batzar Nagusira ezin bada joan, beste bazkide batek ordezkatu ahalko du. Ordezkatzea idatzizkoa eta bilera konkretu baterako izan beharko da. Bere onarpena Batzarraren mahaiburuak bileraren hasieran egingo du.

Bazkide bakoitzak boto bat bakarrik ordezkatu ahalko du, beraz, bazkide batek bi boto bakarrik eman ahalko ditu.

Lan-bazkideen botoek batera ezin izango dute Batzarrak emandako botoen % 15 baino gehiago izan, beraz horren arabera haztatuko dira.

42. Artikulua. Bileraren akta

Batzar Nagusia bukatzen denean, bileraren akta egin behar da, lehendakariak eta idazkariak sinaturik, eta honako puntuak agertu behar dira:

- a) Non egin den eta data.
- b) Bertaratutakoen kopurua, adierazita zeintzuk joan diren pertsonalki eta zeintzuk parte hartzen duten ordezkaritza bidez.
- c) Lehenengo deialdian edo bigarrenean egin den.
- d) Eztatidatu diren gaien laburpena.
- e) Aktan agertzea nahi duten bazkideen parte-hartzeak.

f) Harturiko erabakiak eta bozketen emaitzak.

Batzar Nagusiaren aktaren onarpena bi modutan egin daiteke:

1. Batzarra egin eta berehala.

2. Batzarra egin eta hurrengo hamabost egunetan. Lehendakariak eta akta betetzeko batzarrak izendatutako bi ordezkariak sinatu beharko dute.

Edozein bazkidek hartutako erabakien ziurtagiria eska dezake eta Errektore Kontseiluak emateko beharra dauka. Boto sozialen % 5ek eskubidea dauka, nahi izanez gero, eta batzarra egin baino bost egun lehenago, akta notario batek egin dezala eskatzeko.

43. Artikulua. Erabaki sozialak aurkaratu

Arauei eta Kataluniako Kooperatiben Legearen 52. artikulua jarraikiz, Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratuak izan ahalko dira; baldin eta legea hausten badute, estatutuen kontrakoak badira edota Kooperatibaren interesei kalte egiten badiete eta bazkide baten, batzuen edo beste pertsonen aldekoak badira.

44. Artikulua. Errektore Kontseilua

Errektore Kontseilua sozietatearen ordezkaria eta gobernu-organoa da. Enpresa kudeatzen du eta beharrezkoa denean, zuzendaritzaren funtzio eta akten kontrol iraunkor eta zuzena du, baita kontseilari-delegatuen eta emandako ordezkarien eskubideenak ere. Edozein kasutan, Batzar Nagusian finkaturiko irizpideen arabera, jarraitu beharreko ildo orokorrak ezartzeko ahalmena dauka, baita Legeak, estatutu hauek eta araudiak baimentzen dituzten beste ekintzak egiteko ere. Halaber, legeen edo estatutuen arabera beste edozein organo soziali ematen ez zaizkion kompetentzia guztiak ditu. Era berean, legeek edo estatutuek beste organo sozialei erantsi ez dizkieten kompetentzietan jarduteko eskubidea ere du; batez ere, Kataluniako Kooperatiben Legearen 141. eta 142. artikuluetan ageri diren akordio interkooperatiboetan zein beste ekonomia-kolaborazio motetan parte-hartzea, ordezkatzeko erakundeekin bat egitea edo bereiztea, bai eta bazkideen borondatezko finantzaketa onartzea ere, Batzarrak ezarritako gehieneko zenbatekoaren eta baldintzen arabera.

Lehendakariak, Errektore Kontseiluaren izenean, sozietatearen ordezkariak eta hauen organoen lehendakariak esleituak dira. Batzar Nagusiak espresuki baimena ematen dio, Kooperatibaren izenean, maileguak eskatu eta sinatzeko.

45. Artikulua. Errektore Kontseiluaren konposizioa

Kooperatibak, genero-ekitatearen aldeko konpromisotik, konpromisoa hartzen du Errektore Kontseiluaren osakeran eta, hala badagokio, gainerako organo sozialetan, ekitate hori islatzeko. Era

berean, Errektore Kontseiluaren osieran ahaleginak egingo dira kideek genero-aniztasuna eta kooperatibako bazkide gisa antzintasun handiena ordezka ditzaten.

Errektore Kontseilua gutxienez bost (5) pertsonak eta hamaikak (11) gehienez, osatzen dute. Kooperatibaren bazkideek hautatuko dituzte, Batzar Nagusian, isilpeko bozketa bidez, boto gehien jaso dituzten kooperatibako bazkideen artean. Errektore Kontseilua osatzen duten pertsonen artean, gutxienez bost (5) eta gehienez bederatzi (9) kontsumo-bazkideak izango dira, eta gehienez bi (2) lan-bazkideak izango dira. Bazkide kolaboratzaileak Errektore Kontseiluko partaidetzatik kanpo geratuko dira.

Berdinketa gertatuz gero, lehenengo paragrafoan zehaztutako irizpideetara egokitzen den pertsona hautatuko da, Errektore Kontseiluan ordezkaritza txikiena duen generoko hautagaia lehenesteko. Genero bereko hautagaien kasuan, Kooperatibako bazkide gisa antzintasun handiena duen pertsona hautatuko da.

Aurreko irizpideak hautagaien arteko berdinketa ezin badute hautsi, Bartz Nagusi bereberean bozketa errepikatuko da berdinketa izan duten pertsonen artean hautatzeko.

Karguak hauexek dira: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta batzordekide/ak. Beraien antolamendua Errektore Kontseiluari dagokio.

46. Artikulua. Iraupena, berritzea, derrigortasuna, baliogabetzea eta kontseilaritza karguaren doakotasuna

Errektore Kontseiluko kideen kargua lau urtetarako izanen da. Urtero Errektore Kontseiluaren laurden bat berrituko da.

Kargu hau derrigorrezkoa da, berrautaketa edo bidezko beste kausa batean izan ezik.

Batzar Nagusiak Errektore Kontseiluaren kideak baliogabetu ahalko ditu, izendatuak izan ziren denboraldia bukatu baino lehenago. Baliogabetze-erabaki hau gehiengo soilarekin egingen da, gai-zerrendan egonez gero; edo boto sozialen gehiengo osoarekin, egon ezean.

Errektore Kontseiluko kideak postuak ez du ordainsari eskubiderik. Hala ere, karguak sortu dituen gastu eta kalteak konpentsatu beharko dira.

47. Artikulua. Errektore Kontseiluaren funtzionamendua

Errektore kontseilua, aldezturik deituta, sei hilabetean behin bilduko da; eta behar den guztietan ohiz kanpoko bilera egingo du.

Errektore Kontseiluaren bilera lehendakariak deituko du, berak edo Kontseiluko edozein kidek eskatuta. Eskatera hamar egunen buruan gauzatu ez bada, Errektore Kontseiluko edozein kidek

bilera zuzenki deitu ahalko du, betiere Errektore Kontseiluko kideen heren batek bat egiten bada.

Errektore Kontseiluaren bilera bideokonferentzia bitartez edo beste komunikabide mota erabiliz egin daiteke. Edozein modutan, parte hartzaileen identifikazioa argi eta garbi ageri behar da, komunikazioa jarraitua izan behar da eta, azkenik, deliberamenduetan hitza hartzeko eta botoa emateko aukera egon behar da. Kasu honetan, bilera zuzentzen duen pertsona dagoen tokian egiten dela ulertuko da.

Errektore Kontseilua erabat osaturik geratuko da eta, beraz, bere deliberamenduak baliozkoak izanen dira, bilerara kideen erdiak eta bat gehiago agertzen direnean, presente edo ordezkaturik. Errektore Kontseiluko kide batek beste bat bakarrik ordezkatu ahalko du.

Errektore Kontseiluko kideen bileran modu telematikoan, bideokonferentziaz edo beste komunikazio-bideren baten bidez parte hartzen duten kideak bileran daudela ulertuko da, baldin eta, aurreko paragrafoarekin bat etorriz, parte-hartzaileen identifikazioa argi eta garbi ageri bada, komunikazioa jarraitua izan bada eta deliberamenduetan hitza hartzeko eta botoa emateko aukera egon bada

Errektore Kontseiluaren erabakiak presente edo ordezkaturik dauden kideen gehiengo osoarekin onartuko dira. Kataluniako Kooperatiben Legearen 57. artikuluan ageri diren gainerako funtzionamendu-arauak ezarriko dira.

48. Artikulua. Errektore kontseiluaren funtzioak eskuordetzea

Errektore Kontseiluak bere funtzioak kide baten esku edo bere kideez osaturiko batzordeen esku utzi ahalko ditu; eta Zuzendaria eta gerentea ere izendatu ahalko ditu. Horretarako, Errektore Kontseiluaren bi herenen aldeko botoak beharrezkoa izanen dira, baita Kooperatiben Erregistroan inskribaturik egotea ere.

Funtzioen eskuordetzea egunero hartu behar diren erabakiei egiten die erreferentzia. Hauek Errektore Kontseiluak hurrengo bileran berrestu beharko ditu.

Edozein kasutan, Errektore Kontseiluak honako ahalmenak mantentzen ditu:

1. Batzar Nagusiak ezarritako politika orokorraren arabera, Kooperatibaren kudeaketaren jarraibideak ezarri.
2. Bere esku dagoen enpresa-kudeaketaren kontrol zuzena eta iraunkorra.
3. Batzar Nagusiari kudeaketaren txostena aurkeztu, kontu eman eta emaitzen egozte eta esleipena proposatu.
4. Beste pertsonen aldeko abalak edo fidantzen prestazioa onartu.

5. Ekarpunen itzulketari uko egin, 21. artikuluan ezartzen den moduan.

49. Artikulua. Errektore Kontseiluaren ardura

Errektore Kontseiluko kideek ordezkaturik dauden pertsonetikiko ardura eta leialtasunarekin beteko dute euren kargua eta enpresa modu ordenatuan kudeatu beharko dute. Errektore Kontseiluko kideek elkarkidetasunez erantzungo dute Kooperatiba, bazkide eta hartzekodun sozialen aurrean, Legearen edo Estatutuen aurka egin dituzten ekintzek sortzen dituzten kalteengatik edo beren kargua behar bezalako ardurarekin ez betetzearren. Hala ere, ez dute erantzukizunik izango parte hartu ez duten ekintzen aurrean edo erabakiaren aurkako botoa eman badute eta beraien aurkako jarrera aktan agertzen bada edo, erabakia hartu eta hamar egun pasatu baino lehen, dokumentu fede-emaila baten bitartez Errektore Kontseiluari jakinarazten badiote.

Sozietateak Errektore Kontseiluko kideen aurka erantzukizun-jarduera egin dezake, Batzarraren erabaki baten bitartez, gai-zerrendan agertu ez arren. Jarduera hiru urteren buruan preskribatuko du, egin ahal izan den momentutik aurrera kontatuta. Gutxienez boto sozialen % 5 ordezkatzeko duen bazkide talde batek erantzukizun-jarduera egin dezake, sozietateak ez badu egin adostu zen bezala eta hilabetea pasatu bada; edo Batzarrak erantzukizun-eskakizuna egiteko aurkako erabakia hartu badu. Hartzekodunek Errektore Kontseiluko kideen aurkako erantzukizun-jarduera egin dezakete ekintza hau ez badu sozietateak egin edo bere bazkideek, betiere beren maileguak asetzeko ondare soziala ez bada nahikoa.

Batzarrak edozein momentutan erantzukizun-jarduera egiteari uko egin diezaioke, betiere boto sozialen % 5 ordezkatzeko duten bazkideak aurka ez badaude.

Bazkideei edo bestelakoei dagozkien kalte-ordainketa kasuetan izan ezik (Errektore Kontseiluaren ekintzek euren interesei kalte egin badiete), egin beharreko jardura gauzatzeko preskripzio-epa aurreko paragrafoan aurreikusten dena izanen da, auzi-jartzailea bazkidea bada; eta ez bada bazkidea, urte batekoa, Kode Zibilaren 1968 artikulua jarraituz.

50. Artikulua. Kontseilari izateko bateraezintasunak eta debekuak

Kataluniako Kooperatiben Legearen 63. artikuluan aipatzen diren kasuetan inplikaturik dauden pertsonak ezin izango dira Errektore Kontseiluko kideak izan, ezta kooperatiba baten zuzendaritza edo gerentzia kargua bete ere.

51. Artikulua. Interes-gatazkak: Errektore Kontseiluko kideen eta Kooperatibaren arteko kontratuak

Batzar Nagusiak baimendu beharko du Kooperatiba Errektore Kontseiluko edozein kiderekin edo zuzendaritzakoekin edo beraien edozein ahaiderekin (odolkidetasuneko laugarren maila arte, edo bigarren maila arte ezkontza-ahaidetasuna izanez gero) behartzea. Harremanak bazkide

izaerarenak baldin badira, baimena ez da beharrezkoa izango.

Interes-gatazkako egoera duten bazkideek ezin izango dute hala dagokion bozketan parte hartu. Hitzartutako kontratuak aipatutako baimenik ez badu, baliogabetu ahal izango da, hura berretsi ezean. Beste batzuek fede onean lortu dituzten eskubideetan ez du eraginik izango.

52. Artikulua. Kontu-hartzaileak: izendapena, ordainketa eta bateraezintasunak

Batzar Nagusiak bere bazkideen artean hiru (3) kontu-hartzaile izendatu behar ditu eta karguan hiru (3) urtez egon beharko dute.

Kontu-hartzaile kargua doakoa da, baina sortzen diren gastuak kooperatibak ordaindu beharko ditu.

Kataluniako Kooperatiben Legeko 65. artikuluan ezarritako mugen arabera, Kontu-hartzailearen kargua Errektore Kontseiluko kide, gerente, lehendakari postuekin edo ahaideekin bateraezina da. Hala ere, aipatutako legearen 51.4 artikuluan baimentzen diren kasuak Batzar Nagusiak onartu ahalko ditu.

53. Artikulua. Kontu-hartzaileen eginkizunak

Kontu-hartzaileek enpresaren kudeaketari buruzko txostena Batzar Nagusiari aurkeztu behar diote baita balantzea, emaitzen kontua eta beste edozein dokumentu kontable ere, Batzar Nagusiaren onarpena behar izanez gero. Errektore Kontseiluak beharrezko dokumentazioa eman eta gero, epea 30 egunekoa izango da. Kontu-hartzailea ados egon ezean, txosten bereizi bat aurkeztu ahalko du.

Batzar Nagusiak erabaki dezake ekitaldi ekonomikoaren kontuak Kooperatibarekin zerikusirik ez daukaten pertsonen egiaztatzea. Pertsona hauek kontabilitatean adituak izango dira.

Kontu-hartzaileak edozein momentutan Kooperatibaren dokumentazioa egiaztatzeko eskubidea dauka.

Batzar Nagusiak edo Errektore Kontseiluak onartzen badu edo kooperatibaren bazkideen % 15ek eskatzen badu, ekitaldi ekonomikoaren kontuak kontu-ikuskariak egiaztatu beharko dituzte.

VI. KAPITULOA. ESTATUTU SOZIALAK ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZKETA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

54. Artikulua. Estatutu Sozialak aldatzea

Estatutu sozialak aldatzeko erabakia hartzeko, Batzar Nagusian bildutakoen eta ordezkaturakoen aldeko boto sozialen bi herenak beharko dira. Hala ere, helbide soziala udalerrri bereberean

aldatzeko Errektore Kontseiluaren onarpenarekin nahikoa izanen da.

Estatutu sozialen aldaketa Kooperatiben Erregistroan erregistratu behar da.

55. Artikulua. Kooperatibaren bat-egitea eta bereizketa

Kooperatibek euren artean bat egin ahalko dute, beraien helburu sozialak bateraezinak ez badira.

Bat-egite akordioa estatutu hauen 40. artikuluan aipatzen diren aldeko botoekin onartu beharko da. Kataluniako Kooperatiben Legearen 91. artikuluan aipatzen den prozedura jarraitu beharko da.

Batzar Nagusiak Kooperatiba bi zatitan banatzea erabaki dezake, estatutu hauen 40. artikuluan aipatzen diren aldeko botoekin. Kataluniako Kooperatiben Legearen 99. Artikuluan aipatzen dena aintzat hartuko da.

Artikulu honetan aurreikusitako kasu guztietan, eskatutako dokumentazioa argitaratu beharko da webgune korporatiboan, edukiak lege eskatutako moduan eta epean aurkeztuz, eta informazio hori deskargatzeko eta inprimatzeko aukera emanaz.

56. Artikulua. Desegitea eta likidazioa

Kooperatibaren desegite kausak honakoak izanen dira:

1. Helburu sozialaren bukaera edo hau ezin egitea.
2. Bazkideen borondatea.
3. Bazkide-kopurua kooperatiba bat sortu ahal izateko legalki behar den gutxieneko kopuruaren azpitik egotea, egoera horrek urtebete baino gehiago irauten badu.
4. Kapital soziala legeak ezartzen duen gutxienekoaren azpitik egotea, egoera horrek urtebete baino gehiago irauten badu.
5. Estatutu hauen 55. artikuluan aipatzen diren bat-egitea edo banaketa.
6. Hartzekodunen konkurtsoa.
7. Legeak ezartzen duen beste edozein kausa.

Deuseztaturiko kooperatibak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du likidatzen den bitartean. Denbora honetan izen sozialari "likidatze prozesuan" esaldia gehitu beharko zaio.

57. Artikulua. Likidatzaileen izendapena eta atribuzioa

Batzar Nagusia, isilpeko bozketan, bazkide-likidatzaile bat izendatuko du. Batzarrak likidatzailearik izendatu ezean, Errektore Kontseiluko kideak izango dira likidatzaileak.

Estatutuen 56. artikuluan arauturik ageri den kausaren bat gertatuz gero, eta Batzar Nagusiak ez badu Kooperatibaren deuseztapena onartzen, Errektore Kontseiluak, edozein bazkidek edo interesaturik dagoen beste edozein pertsonak deuseztapen judiziala eta likidatzaileen izendapena eska ditzakete.

Likidatzaileek beharrezkoak diren ekarpen guztiak eginen dituzte eta epe honetan Batzar Nagusia beharrezkoa denean bilduko da. Likidatzaileek Batzarrari kudeaketa eta balantzearen berri emanen diote, onartuak izan daitezten.

58. Artikulua. Ondare sozialaren esleipena

Kooperatibaren ondare soziala esleitzeko, Kataluniako Kooperatiben Legearen 106. artikulua kontuan hartuko da.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria

Kooperatiba honek handizkari izaera dauka eta txikizkari bezala jardungo du Kataluniako Kooperatiben Legearen 117. artikulua aintzat hartuz. Kooperatibaren bazkideei ondareak eta zerbitzuak emateak ez dauka salmenta izaerarik, batera erosi dituzten taldekatutako kontsumitzaileak baitira.

Bigarren xedapen gehigarria

Estatutu hauetan arauturik ageri ez diren kasu guztietan Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legeak dioena ezarriko da edo aplikagarria den legedian ageri dena.

Hirugarren xedapen gehigarria

Bazkide eta kooperatibaren artean jarduera Kooperatibizatuaren barnean sortzen diren auziak edo kooperatiba eta bera afiliaturik dagoen federazioaren artean, beti ere xedapen libreko gaietan eskubidea duten aldean artean erreferentzia egiten badute, Kooperazioaren Kontseilu Nagusiaren kontziliazio, arbitraje edota bitartekaritzaren esku jarriko dira, 171/2009 Dekretuak, azaroaren 3koak, esaten duena kontuan hartuz. Honek kontziliazio, bitartekaritza eta arbitraje prozeduren Araudia onartzen du Kooperazio Kontseilu Nagusiaren aurrean (5499 DOGC zenbakia, 2009ko azaroaren 5a). Aldeak espresuki konprometitzen dira aipaturiko arbitrajetik sortzen den laudoa betetzera, edo bestela, kontziliazio edo bitartekaritza aktan ageri diren akordioak betetzera.

Laugarren xedapen gehigarria

Kooperatibak webgune korporatiboan argitaratuko ditu beste kooperatiba batzuekin sinatzen dituen hitzarmen eta akordio interkooperatiboak.